

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4548

EBAZPENA, 2022ko urriaren 13koa, Plangintza eta Antolaketako zuzendariarena; honen bidez, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna Balorazio Batzorde honetako kide izendatzen da: 2022-2023 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, Lantokiko Prestakuntzako modulua (LP) egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat enpresa-egonaldiatarako bekak emateko Balorazio Batzordea.

Ikusi da Hezkuntzako sailburuaren 2022ko uztailaren 26ko Agindua, zeinaren bidez egiten baita enpresa-egonaldiatarako beken deialdia, 2022-2023 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua (LP) egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat.

Agindu horren 8. artikuluan xedatzen denez, eskabideak ebaluazio-batzorde batek baloratuko ditu, eta agindua eman zen egunean Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduradunaren lanpostua hutsik zegoenez, izendapena orain egiten da, lanpostu horretaz jabetu ondoren.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aitor López de Aberasturi Ortiz de Pinedo, edo haren ordezkoa, Balorazio Batzordeko kide izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, eta herritar oro jakitun egon dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 13a.

Plangintza eta Antolaketako zuzendaria,
NICOLÁS SAGARZAZU ALZUA.